

## XVII. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

### *AZKEN ERABAKIA*

XVII. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria epaitzeko Andoaingo Udalak izendaturiko epaimahaiak -Jose Antonio Pérez Gabarain mahaiburuak, Jose Inazio Basterretxea, Allande Boutin, Mikel Irizar, Arantxa Urretabizkaia, Ana Urkiza, eta idazkari gisa eta, beraz, hizpidez baina hautespiderik gabe, Nekane Goikoetxeak- aho batez adostu du ondorengo *azken erabakia* hartu eta ezagutzera ematea.

1.- Dakizuen bezala, euskaraz egindako kazetaritza suspertzea da sari honen helburu nagusia; kazetariak urtebetean eginiko lana behatzea eta baloratzea, berriz, epaimahai honen egitekoa.

Urteak eman duenaren laburbildumari hasiera emateko, Argia aldizkariaren 2.000. alea aipatu nahiko genuke. Gutxitan lortu da euskarazko prentsan hain zenbaki biribila. 2.000 aleko zifra marka absolutua dateke euskarazko astekarigintzan. Aipagarria da efemeridea ospatzeko euskarri berrien bitartez Argiako lan-taldeak eman duen uzta. Efemerideaz gain, garai berrietara eta inguru lehiakorrean egokitzen eta biziberritzen asmatu izana azpimarratu nahi da. Guztiz aldatu den euskarazko prentsaren munduan, bere lekua finkatu du, estiloa eta edukia eraberrituz, freskotasuna eskainiz. Gogoan dugu, halaber, sari honek gorazarre egin nahi dion Rikardo Arregik Zeruko Argian eman zituela bere onenak kazetaritza arloan. Horregatik guztiagatik, gure zorionik beroena.

Zorion agurraren ondotik, azken agurra *Ardotxi* andoaindarrarentzat. Joxe Ramon Goikoetxea Sorondok, *Piaren semea* Andoainen, kazetaritzan baztertu samar geratzen diren albiste ekonomikoak landu zituen. Egin eta Gara egunkariei lotua, LAB sindikatuaren “Iraultzen” aldizkarian arduradun izan zen urtetan. “Iraultzen” aldizkarian idazten zuen joan den apirilean ustekabeen hil zen arte. Besarkada beroa bere sendiarentzat.

Hedabideek eman dute aurten ere berea, medio berriak sortuz eta beste batzuk desagertuz. Edizio honetan, ordea, bereziki aipatu nahiko genituzke euskarri berrien bitartez etorri direnak. *Eitb24.com* ataria aipatzeaz batera, euskal blogosfera azpimarratu nahiko genuke. Aipagarria iruditzen zaigu nola garatu den blogintzaren fenomeno euskaraz, joera globalak bertakotzeko azkartasuna erakutsiz. *Eibar.org* taldeak sortu du lehen blog komunitatea euskaraz, eta honen haritik etorri da *Goiena.net* komunitatea. Bien artean, azaleratu dute euskal blogarien multzo polita eta bultzada eman diote euskarazko blogosferari.

Interneten arloan aipagarri deritzogu Joxe Aranzabalen kasuari. *Sustatu.com* blog kolektiboan eman zuen on-line bere minbiziaren berri, eta aurten komunikazio ariketa hura bihurtu da paperezko liburu. Ohiko ibilbidea izanik paperetik sarera, aipagarria da alderantziz gertatu izana, lehen aldiz. Pozten gara eritasunaren aurka eramandako borroka kontatzeko harturiko kazetaritza-xendraren helmugan osasuna Joxeren zain egon delako.

Arlo honi amaiera emateko, aipagarria begitantzen zaigu *aurki.com*-ek sortu duen tresna, sarean diren euskarazko argitalpen guztiak -blog xumeak zein hedabide handiak- orri bakarrean biltzeko, une oro eguneratuta. Tresna ezin hobe da euskarazko informazio esparrua bistaratzeko.

Kazetari Berriaren atalarekin helduko diogu sari banaketari. Lan gutxi aurkeztu dira edizio honetan. Benetako kezka sortu digu honek. Gure deia, bada, kazetari gazte zein hedabideetako zuzendariei, hautagaiak aurkez ditzaten.

**2.-** Hauxe da epaimahai honen erabakia:

\* **2.1.-** “*Kazetari berria*” ataleko saria, 3.000,- euroz, diplomaz eta Xabier Laka eskultorearen oroitikurraz hornitutakoa. Kazetaritza munduan lehen urratsak egin dituzten gazteentzat pentsatua, gehienez 27 urte dituztenek dute aurkezteko aukera.

Aurtengo irabazleak honako merezimenduok ditu Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko epaimahaiaren iritziz:

- Kazetaritzako generoekin harreman librea du kazetariak.
- Darabilen gaitegia interesgarria eta erakargarria/berria da oso.
- Titularrak egiteko modua azpimarragarria da, bigarren irakurketarako bidea ematen du eta kontraste ederrak sortzen ditu.
- Formatu mugatua izanik askotan, ongi egokitzen zaio daukan tarteari, lana biribilduz egitura aldetik.

- Ez darabil hizkuntza lehorra, oihartzun literarioak aberastu egiten du testu iradokitzailea.
- Bereziki azpimarratu nahi da bere lanen protagonistei hitza emateko modua, kazetaria handinahian erori gabe, benetako protagonisten mezua hobetsiz.

+ *Sariduna*: **Ainhoa Lendinez Garate andrea**

+ *Saritutako lana*: 2004ko ekainetik 2005eko maiatzera bitartean Argia astekarian argitaratutako erreportajeak.

\* **2.2.- XVII. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko “Sari Nagusia”**, diplomaz, 9.000,- euroz eta Xabier Laka eskultorearen oroitikurrak hornitutakoa. Honen bitartez saritzen direnak kalitatea, berrikuntza eta eredugarritasuna dira.

Saritutako lana zein den argitu aurretik, aipamen berezi bat egin nahiko luke epaimahaiak. Ondorengo lanak aitorpena merezi duela irizten du epaimahaiak, ondorengo arrazoiengatik:

- Talde lana egiterakoan, ikuspuntu ezberdinak uztartzen asmatu da.
- Informazioa emateko progresioa egokia da, errazenetik zailenera, irakurlearengana moldatzeko abilezia ohargarria da. Eduki zailak deskodetzen asmatu dute. Irakurle ezberdinengana edo jakintza ezberdina duten irakurleengana heltzen da, guztien asemina betez.
- Jolasteko aukera ematen dio irakurleari, lan jostagarria da.

- Produktu oso zaindua da, bitarteko ezberdinak bikain lotzen dituena. Irudiaren, argazkigintzaren eta infografiaren erabilera bikaina da.
- Dibulgazio-prentsan estilo bat sortu dute egileek eta saritutako lanak ederki erakusten du estilo hori.
- Zientzia gaiak gai edo interes sozialekin bat egiten daki, hortik pizten du interesa, irakurlearentzako amua.

+ *Aipamen bereziaren jasoleak: **Eneko Imaz, Beñardo Kortabarria, Guillermo Roa, Aitziber Agirre eta Ana Galarraga jaun-andreak.***

+ *Aipatutako lana: Elhuyar aldizkariko “Erraustegiak sutan” izeneko dosierra.*

Jarrai dezagun, XVII. edizioko “Sari Nagusiarekin”. Hauek dira epaimahaiaren ustez azpimarratzeko alderdiak:

- Prentsa bulegoen nagusitasunetik kanpo geratzea zaila den unean, lan pertsonala nabarmena da.
- Zuzeneko irratsaio luzean, elementu ezberdinen arteko egokitapena eta sendotasuna lortzen da gidaritza lan bikainaren bitartez.
- Aktualitateari guztiz itsatsitako saioa, esparru labainkorretan ibili arren, dotoreziaz burutzen da, erregistroa gaiari egokituz.
- Besteen ahotsarekiko errespetuzko harremana du. Sariduna ez da besteen ahotsen gaintetik jartzen, ez du elkarrizketa menperatzeko joerarik, eta isiltasunari tarte egiteko abilezia du.

- Bere umorea azpimarratu nahiko genuke, hainbeste falta zaigun nolabaiteko autotrufatze gaitasuna ageri baitu sarituak.
- Nazioarteko gaiei buruzko jakitatea nabarmena da. Etxeko nolaz Europako eta mundu zabaleko gaietan jantzia da.
- Bereziki distiratsua gertatzen da bat-batekotasun landua. Hausnarra prentsarekin, idatzizko erregistroarekin, lotu ohi da, baina kasu honetan ahozko jarduna da sendoa, senez egina.

+ *Sariduna:* **Maite Artola Sarobe andrea.**

+ *Saritutako lana:* 2004ko maiatzetik 2005eko maiatzera Euskadi Irratiko Mezularia saioan eginiko lana.

3.- Ohorezko Aipamenari helduko diogu jarraian. Ohorezko Aipamena norabide ezberdinetan erabili izan du Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren ibilbidean zehar garaian garaiko epaimahaiak. Batzuetan, bizi osoan euskarazko kazetaritzan egindako ibilbidea saritzeko; bestetan, oso gauza ohargarriak azpimarratzeko. Aurtengoak bietatik du zerbait. Sasoikoak izanik eta kazetaritza arloan bete-betean dihardutelarik, ibilbide oparoa duten bi pertsona saritu nahi dira.

Aurten ekintzaileen lana, komunikazio ekimenen eragileena, aipatuko da. Izan ere, euskarazko komunikazioan ez dago oraingoz negozioerik, ezta mozkin helburu nagusi duen enpresarik ere eta, beraz, ekimen guztiak sortu dira edo erakundeetatik edo gizarte ekimenetik. Bigarren hauen kasuan, bidea izan ohi

da zailtasunez betea, eta erabakigarri bihurtzen da ekintzaileen adorea ekimenaren garapenerako.

Merezimenduak, hortaz, hauek dira:

- Egitasmoak sortu, gidatu eta, batez ere, eusteko abilezia da aipagarria.
- Nekez imajina dezakegu egunkari edo irratarik gabeko hizkuntza komunitatea, telebistarekin batera horietxek markatzen dute muga. Bi omenduei zor zaie, besteak beste, bi medio horien gauzapena tokian-tokian.
- Epaimahaiari uztarketa polita iruditzen zaio ipar-hego, prentsa zein irratia.
- Talde-lana gidatzeko ahalmena, lidergoa, erreferentzialtasuna ezaugarri dituzte; ekimen berriak testuinguru zailean abiarazteko eta iraunarazteko ahalmena.
- Bi dira, esan bezala, sarituak. Lehenengoaren kasuan, kazetaritza euskarri eta komunikabideak sortu eta bizirik mantendu izana iruditzen zaigu aipagarriena. Bigarrenaren kasuan, enpresa ikuspegiaz sortzeko ahalmena, euskarazko produktu/zerbitzuak “errentagarritasun” kontzeptuarekin parekatu izana.

*Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren Ohorezko Aipamena* **Luzien Etxezaharreta** eta **Martxelo Otamendirentzat** da.



Honaino, bada, *XVII. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariari* dagokion **azken erabakia**. Epaimahaikideok ontzat ematen eta sinatzen dugu gaur, Andoainen, bi mila eta bosteko uztailaren bian.

**José Antonio Pérez Gabarain**

**Jose Inazio Basterretxea**

**Allande Boutin**

**Arantxa Urretabizkaia**

**Mikel Irizar**

**Ana Urkiza**

**Nekane Goikoetxea**